

**“MILLURTEKO BARRIA ASTEAN”**

Orain urtebete Joan Paulo II garrenak argitaraturiko Eskutitza aurkeztu nai dot. Merezi dau: Millurteko barrian Elizak dauan eginkizuna da gai orokorra. Bibliako eta Vaticano Batzar Nagusiko aipamenak egokiak dira. Eta tankera baiezkor eta dinamikoa darabil etorkizunari begira. Sarrera eta amaieran, eta 15garren eta 38garren zenbakietan, Jesusek Pedrori esaneko “Duc in altum” (jo itsas andira) (Lk 5,6) aipatzen dau, idazkiaren leitmotiv. Onek, diño dau Aita Santuak, “leena eskerronez gogoratzera dei egiten deusku, oraiña garrez bizitzera eta etorkizunera konfiantzaz irekitzera” (1). Zein izan da azken baten jubileuaren asmua? Elizak bere barriztapenaz bere burua aztertu eta “kemen barriaz bere ebanjelizatze eginkizuna artu egian” (2). “Ainbeste bider, illabete oneetan, begitu izan dogu zabalitzen dan millurteko barrirantz, jubileua leenaren oroimen lez ezeze, etorkizunaren profezitzat biziz” (3). Orretarako, lekuko Elizak ditu bereziz gogoan: “Eliza hakoitzaren errealidade konkretuan artzen dau aparteko eraz Jaungoikoaren Erriak inguru eta kultura guztientzat egoki egiten dauan izakera berezia. Eliza aldian eta lekuan gizatze au, azken baten, Gizakunde mugimenduaren beraren ispillu da” (3).

Lau zatitan banandua. Leenengoan eskerrak emoten ditu jubileua gogoratzuz (4-15). Bigarrena: “Aurpegi bat kontenplatze-ko” (16-28). Irugarrena: Kristogaz aurrera egin (29-41). Laugarrena: Maitasunaren lekuko (42-57). Azkenengo biak, gai aldetik, bat egiten dabela esan leike.

## I. Kristogaz izatea, Jubileu Andiaren ondarea

Leenengo zatia jubileu urteko era ezbardiñetako egiteak labur-bilduz asten da. Oneen artean, ez ospakizunak eta erromes-ibilteak bakarrik, baita Elizaren “oroimena” garbitzeko onen istori jazoera batzuen azterketa eta parkamena eskatzea be, eta naziño zorpetuen zorrak jaitziteko aalegiñak. Alderdi guzti oneen artean, ezinbesteko erdigunea “Kristoren arpegia-  
ren kontenplazioa” da, “bere koordenada istorikoetan eta bere misterioan begituta, Berak Elizan eta munduan dituan eraskotako presentzietan onartua, istoriaren zentzuntzat eta gure bideko argitzat autortua” (15). Trinkoa dogu esaldi au: Istoria aipatzen da, aldi eta leku, eta, batera, or gertatzen dan misteriora zuzentzen gaitu, Jesusen sakontasun personalera eta trazendentzi berezira. Orregaitik, Jesus ez da antxiñako istorian gelditzen, Elizako eta munduko “eraskotako” presentzietan jatorku gaur bidera. “Munduko” presentzietan be bai. Noraiñokoa dan bere misterioa zelanbait istoriaren “zentzuna” dala esanez adierazten da. “Zentzun” au ez da teorikoa edo kontenplatzekoa bakarrik; “argia” dogu, munduko bidea argitzen dauana. Norantza jo, zelako jarreraz, zelako ibilleraz.

Izan be, orain, aurrera begitu bear dogu; izandako bizikizunak indar barria sortu bear dabe gudan, eta inizatiba konkretuak (15). Onetarako da Idazkia. Alan be, leenago Kristoren misterioari buruz gogoeta egiten dau, gero ibilli bearreko bide guztiak Kristoren arpegia aaztu eta itzi barik burutu bear dira eta. Bera da “gure pastoral ekintzaren oiñarri absolutoa” (15).

## II. Aurpegi bat kontenplatzeko

“Jesus ikusi nai dogu” (Jn 12,21). Greziar areen antzera, gaurko gizakiak be ori eskatzen deutsee siñestedunei: ez Kristori buruz berba egin bakarrik, zelanbait Bera ikusiazoo baiño. “Eta ez al da ain zuzen Elizaren eginkizuna istoriako aldi bakoitzean Kristoren argia ispillatzea eta millurteko barriko belaunaldien aurrean Aren arpegia distira azotea?” (16).

Ondo, Eskutitzaren baieztapen dau. Eta au da gure grazia, baiña baita “txarra” be: Kristo, istorian zear, gizakien bitartekotasun illunaren menpe egotea. Berezko eta bearrezko da au, istoriaren barruan gagozanez, baiña ukatu eziñekoa dogu Aren egia illundu egiten dana gure testigantzatik zear igarotean.

Orregaitik, jarraitzen dau Idazkiak: “Dardar eragiten deuskun eginkizuna dogu au, begiak ain sarri illun eta itzalez beterik biurtzen gaituan makaltasunean ezarten baditugu. Baiña bete daiteken eginkizuna da, Kristoren argitan, gizaki barri biurtzen gaituan bere graziari edegiten badakigu” (54).

Kristo ezagutzeko, Idazki Santua daukagu: onetan, Kristoren esperientzi bizia izan eben apostoluen testigantza (1Jn 1,1) (17). Ebanjelioen asmua ez da Jesusen irudi istorikoa emotea, gaurko istori erizpide eta arauen erara. Euren fede testigantza itzi nai izan deuskue oiñarri istorikoaren gain (18). Fedeak bakarrik onartu daike Jesus. Apostoluentzat eurentzat be, “Aren gorputza ikusi eta ikutu arren, fedea bakarrik igaro eitekean aurpegi aren misteriora”. Fede bidaldi onen pausuak Ebanjelioak aurkezten deuskuz Zesareako jazokunean (Mt 16,13-20). Zelan eltzen da Pedro autormen onetara: “Zu Kristo zara, Jainko biziaren Semea”? “Ez deusue au aragiak eta odolak iragarri, nire zeruko Aitak baiño”. Lukasek zentzun bardiñeko dato bat eskeintzen deusku, alkarrizketa au Kristo bakarko otoitzean egoala gertatu zala diñoanean (Lk 9,18). Argitasun biak au adierazten deuskue: Jesusen aurpegiaren errredidadera graziaren bidez bakarrik eltzen garala. Otoitzak bakarrik emoten deusku misterio au benetan, zintzo eta egoki ezagutzako aalbidea. Joanen ebanjelioan dator misterio onen adierazpenaren gailurra: “Eta Berbea aragi egin zan, eta gure artean jarri eban bizilekua, eta ikusi dogu Aren aintza, Aitaren Seme bakarrari dagokion aintza, graziaz eta egiaz betea” (Jn 1,14) (19-20).

Olako testoinguruan “fedez” eta “graziaz” berba egitean, ez da igesbiderik aurkitu nai, oztopoak alboratzeko, ezta ez dabe zerbait majiko esan nai, edota Jainkoaren kasketaldi edo

naikeriaren bat. Itz orreek, leenengo ta bein, Kristoren errealdadea bera zer dan edo non eta norantza billatu bear dan adierazo nai dabe. Errealidade ori ez da gainontzakoen ondo-ko edo arteko beste errealdade bat. Kristo bera da grazia, eta bera presente egitea grazia dogu. Batera, onen ondorioz, gizakiaren jarrera egokia adierazoten dabe: Ezin daiteke beste errealdadeen eran aurkitu.

Antxiñako salmistaren gurariak "Jauna, zure aurpegia billatzen dot" (Sal 27,8), ezin eikean erantzun oberik aurkitu. Benetan, "bere aurpegiak argi egin deusku" (Ef 4,24; Kol 3,10) (23). Aldi berean, Kristok gizakiaren benetako aurpegia agertzen deusku. Gizakia zer eta nor dan, norako ( bertan).

Ia iraisean gogoratzen dau Idazkiak "arotzaren semearen" bizitza (Mt 13,55) eta "arotzaren" bizitza, Aren Nazareteko bizitzaldia (18), eta, gero, Erreinuaren etorrerari buruzko ebanjelizatzea, apostoluak inguraturik, emakume talde batek lagun egiola, jentetzak billatzen ebela, geixoak osasun eske, eta era diferenteetako entzuleak. Jesusen eta gizarte erlijiosoko talde agintzailleen arteko tirabira azpimarratzen dau, azken krisira eldu arte (bertan).

Kristoren arpegia begiratzeak kurutzera urreratzen gaitu. Olan diño: "Misterioa misterioan, onen aurrean gizakiak adora-ziñoan auzpeztu bear dau" (25). Oliomendiko agoni jazoeraren sakon-bizia igaroten jaku begien aurretik. Jesusek, zain eukan nekaldia ikusiz, Jaungoikoaren aurrean bakarrik, dei egiten deutso oiturazko konfiantza berba laztanaz: "Abba, Aita! (Mk 14,36). "Pekaturik ezagutu ez ebana pekatu egin zan gugaitik, Jaungoikoaren zuzentasun biurtu geintezan Aregan" (2Kor 5,21). Eta kurutzean: "Ene Jaungoikoa, ene Jaungoikoa, zergaitik itzi nozu?" (Mk 15,34). 22garren salmoaren asikerako itzak, salmoan jarrai au dabenak: "Zugan itxaron eben gure gurasoak, itxaron eben eta zuk askatu egin zenduzan". Oiñaze eta konfiantzazko bizikizunak (26). "Gorputzekoa baiño leenago eta askoz geiago bere nekaldia arimako oiñazea da", ain zuzen berak neurtu daikealako zer dan Jainkoa ez onartzea.

Eskutitzan teologi tradizioaren oiartzuna aurkitzen da: Jesusek zelan batera bizi egikezan Aitagazko alkartasun miña eta bertanbera itziaren oiurainoko agonia (26).

Onetan, esan daigun Alkartasun Barriko testoa eurak be erlijio judeutarraren irudiak eta interpretaziñoak agertzen da bezala. Tradiziño orretan odolaren balio erlijiosoa eta erruaren ordaiña dagoz. Ortik asita teologi tradiziñoan “expiazziño” azalpenak eta interpretaziñoak garrantzi andia izan dau, eta era batera edo bestera, beti izan da. Kristoren errealidadea ulertzeko erak dira, aalegiñak, asikeratik. Begirunez entzuten dituguk gaur, positiboren bat jarri nai dabe eta. Baiña gure gaurko fedea ez dau or laguntzarik aurkitzen: Jaungoikoaren irudia guztiz illuntzen deusku, argitu bearrean. Leenagoko azalpenen asmua argitze au zan, eta Aitaren maitasuna konkretoki iragartea. Gure ulermena beste bide onetatik doa: Nekaldipeko Jesus “geulakoa” zala guztiz, istoriaren goraberetan murgildua, ondorio guztiakaz. Eta, bigarren, historia barruko joko onetan, maitasunaren zintzotasuna bizi izan ebala. Maitasunarem zintzotasun au da, geulakoa barrutik izanez, Aren semetza betera daroana. Or jazoten da berbizkundea deitzen doguna: Aitaren maitasunaren zintzotasuna ez da txikiagoa eta.

Kristoren aurpegiaren kontenplaziñoa ez da gelditzen kuru-tzeratuaren irudian, diño jarraian Idazkiak. Berbiztua dogu. Olan ez balitz, alperrikoa litzake gure fedea (1Kor 15,14) (28). Ebanjelioetako fede-komunikaziñoa ikasleen esperientzi pozgarrarian amaitzen da: Espiritua artzen dabe Jesusegandik, eta ebanjelioa gizaki guztiari iragarteko agindua (18). Elizak orain Kristo berbiztuari begitzen deutso. Ukatu ebalako negar egin eban Pedoren pausuai jarraituz: “Zuk badakizu maite zaitudala” (Jn 21,15.17). Eta Paulogaz batera, Damaskoko bidean aurkitu eta betiko irabazita gelditu zan Paulogaz: “Niretzat bizia Kristo da, eta eriotza, irabazia” (Flp 1,21). “Bai gozoa Jesusen gomuta, biotzaren benetako pozaren iturria!” Elizak, bizikizun onek adoretuta, munduari Kristo iragarteko bidea artzen dau barriro (27).

Olan da. Kristau fedearen aitza, Elizarentzat eta bakoitzarentzat, Jesus kurutzeratu eta herbiztu au dogu (beragan lurreko Jesus istorikoa gordeten dauala). Beragan, kurutzeratua eta herbiztua danez, atsedean aurkitzen dabe itaunak eta noraezak. Munduko oiñaze guztia onartzen dau bere bizi ixillean. Egin daike ori, kurutzeratua eta herbiztua dalako: geulakoa guztiz, eta batera, "herbiztua", bizia dauan kurutzeratua. Ixilik egiten dau: geure fedea beragan jartean, azalpen barik, azken baten arrazoi-keta barik, bere izatea (kurutzeratu herbiztua) aurrean jarritz.

### III. Kristogaz aurrera egin

"Zuekin nago egun guztietan munduaren azkenerarte" (Mt 28,20). Jesusen gurekin egote onetan oiñarriturik, guk be Pedrori egindako itauna jarten dogu: "Zer egin bear dogu, anaiok?" (Ap Eg 2,37). Konfiantzazko baiezkortasunez itauntzen dogu, eta alan be arazoak gitxietsi barik. Ez gaitu naikotzen gure aldiko arazoentzat formula majikoren bat dagoala siñesteak. Ez gaitu formula majikoak sabatuko, baiña bai Persona batek eta Beronek emoten deuskun ziurtasunak: ni zuekin nago!

Ez dago egitasmu barririk asmau bearrik. Egitasmua badaukagu. Betikoa da, ebanjelioan eta tradizio bizian artu ta zaindua. Egitasmu au Kristogan labor-biltzen da: Kristo ezagutu bear da, maitatu eta jarraitu, Beragaz Irutasun-bizia bizitzeko eta istoria aldatzeko onen betea lortuarate. Aldiakaz eta kulturakaz aldatzen ez dan egitasmua da, nai ta aldia eta kultura kontuan izan, benetako alkarrizketarako eta komunikazio eraginkorrerako. Betikoa izanda be, egitasmuak komunidadea bakoitzarentzat egoki diran norabideak jarri bear ditu. Au lekuko Elizentzat esana da. Eta eurei buruz idazkiak gogoan dau gotzaien batzarren eta sinodoen alkar lana (29).

Izkera orekatsua izan nai dauan onetan, azkenean ez dakiagu zeatz zer baiezten dan. Itzi daigun egitasmua badagoala ebanjelioan baieztapena. Gaur egitasmuaz dagigunean egintza

naiko zeatza esan nai dogu. Begiak Kristogan jarrea esan nai bada, egia, or dago. Baiña, orduan, ori gure fedearantzat garrantzitsuena eta aldera-eziñekoa izan arren (au da fedea), ez daukaguz beste barik aldi eta lekuentzako erantzunak. Auxe esan nai bear leuke ain zuzen aipaturiko formula majikoa ukatzeak. Beraz, gelditu gaitezau gauza bi oneekaz: begiak Kristogan jarri bear ditugula beti, eta ez daukagula arazo guztientzako formula majikorik.

Zergaitik zabuka ibilte au? Zer asmatu daiteke azpian? Bearbada antropolojiaren diferentzia. Zer da gizona eta zer gizartea orain eta emen? Zeintzuk dira gizaki onen bearrian konkretoak, zerk laguntzen deutso orain eta zerk apurtzen dau? Bearrian konkretoak diferenteak badira, erantzunak, sendabideak, diferenteak izan bear dabe. Alan be, badakigu arazoa ez dala bape erreza, eta antropologiak teologia jarten dauala kinkan, nai ta nai ez.

### ***Aurrenengo gai batzuk***

Santidadea. “Egitasmutu’ ete daiteke santidadea? Zer esan nai daike itz onek postoralgintzako lojikan?” Bateoa Kristogan murgilduaz Jaungoikoaren santidadean sartzea bada, zentzuba-koa litzake erdizkako kristau bizitzea, azaleko erlijioa erabili-liaz. *Baiña santidadearen irudi diferenteak dagoz, eta olan izan da istorian zear.* Orregaitik, Kontzilioak Irakatsi eban lez, ez da txarto ulertu bear, bizitza ezoizkoa esan gura baleu bezala, eta santidadeko “genio” batzuk bakarrik gauzatu daikeen-na. Santidade bideak asko dira eta bakoitzaren bokaziñoarentzat erazkoak (31).

Gai oni lotuta dagi Eskutitzak otoitzaz, iganderoko eukaristiaz, adiskidetze sakramentuaz, Berbea entzuteaz, Berbea iragarteaz, emen ebanjelizatze barria eta inkulturapena sartzen dituala (40).

Azpimarratu daigun otoitzaz diñoana. Ikasleak Jesusi egin-dako eskaria gogoratzen dau: “Jauna, irakatsi eiguzu otoitz egi-

ten" (Lk 11,1). Otoitzak, alkarrizketaz, Kristoren adiskide miñak biurtzen gaitu: "Iraun egizue nigan, ni zuekan lez" (Jn 15,4). Alkartasun au da kristau bizitzaren arimea bera. Trinitate barruko artuemonetan sartzan gaitu. Eta liturjian eta otoitz personalean mamitzen da. Iturri onetara beti barriro biurtuz barrizatzen danak ez dau etorkizunaren bildurrik (32). Gaur, sekularizaziño giro onetan bertan be agiri da an or emen espiritualidade eskaria, era ezbardiñetan. Erantzun diferenteen artean, kristau fedea eta bizikizuna maitasun miñaren alkartasuna dogu. Graziak eusten deutso bide ori; baiña norberaren aalegin espirituala be eskatzen dau, eta barne garbikuntza mintsuak be igaro bear izaten dira ("gau illuna"); baiña eltzen da, era askoren artean, mistikuak "ezkontza-alkartasun" lez biziriko poz esaneziñera (33).

Au olan gerta daiteke, baiña ez da beti orrela jazoten. Eta ez dauka bete bearrik. Kristau mistikuak (eta beste erlejiñoeta-koak) izan ditue olako bizikizun bete eta pozgarriak, ezoizkoak. Baiña kristau "mistika" azken baten ez da orretan oiñarritzen. Kristoren bizitza eta eriotza ditu beti azken erizpide; eta beste era guztiak, zapuztu barik, azken erizpide onetatik bereizten ditu. Izan daiteke azkenean aipaturiko gau illuna aurkiztea. Izan daiteke bizitza guztian zelanbait argi eta illunarem artean bizi bear izatea. Eta baliteke berezkoena auxe izatea, istorian zear eta barruan.

Gure kristau komunidadek -darrai Idazkiak- benetako otoitz-eskola biurtu bear dabe. An Kristorekin topo egitea ez da agertuko laguntza eskatzean bakarrik; eskerrak emongo dira, gorespina, gurtza, kontenplazioa, entzutea eta biotzondo bizia gertatuko dira. Eta, jakiña, kristau otoitza Istoriako konpromisotik iñondik iñora aldentzen ez dauan otoitza dogu (33). "Bearrezkoa da, beraz, otoitz ezikuntza zelanbait edozein postoralgintzaren une erabagikor biurtzea" (34).

Otoitza olan azpimarratzeak grazia dala leenengo esan gura dau. Otoitzean ezitzea ez da besterik fedean ezitzea baiño.

Badakigu grazia, eta ondorioz otoitza, ezin daitekela majikoki ulertu. Grazia barik ezin daitekela ezer egin esatean, zertaz gabiltzan azaltzen dogu. Adimen eta zentzun errekurso eta elbide guztiak ipiñi bear dira Erreiñuaren zerbitzuan, baiña leenengo Kristo bera dala grazia gogoratu bear dogu, eta Aregaz batera santidadearen guraria (Kristoren grazia artzea).

“Oinbarri au aintzat artzen ez danean, arritzekoa ete da postoral proiektuak porrotean amaitzea eta uts-egite lotsagarriaren sentimentua ariman iztea?” (38). “Au da fedearen, otoitzaren, Jainkoagazko alkarrizketaren momentua, biotza graziaren eraginari edegitzeko, eta Kristoren berbeari bere indar guztiaz geu artzen izteko (bertan).

#### IV. Maitasunaren lekuko

Laugarren parte au Joan 13, 34 (agindu barria) eta 1Kor 13 (maitasunaren goratarrea) aipatuz asten da, Elizaren biotza maitasuna dala baiezteko.

“Komunioa” dalata diñoana jarri bear dogu argitan. “Eliza komunioaren etxe eta eskola izan daitela: au da asten dan millurtekoan aurrean daukagun aupada andia, Jaungoikoaren asmuagaz zintzoak izan nai badogu eta munduaren itxaropen sakonai erantzuna emon nai badeutsegu” (43). Orretarako, ekin-tza bideak baiño leenago, komunio espiritualitatea bear da. “Komunio espiritualidadeak au esan gura dau: leenengo ta bein, biotzeko begiz batez be gugan bizi dan Trinitade misterioari begitzea, eta Aren argia anaien arpegietan be ikustea”. “Fedeko anaia Gorputz Mistikoaren alkartasun sakonean sentitzeko gaitasuna, bere pozak eta miñak alkarbanatzeko, aren gurariak ulertu eta bearrizanen ardura izateko”. “Leenengo ta bein, besteagan dagoan ona ikusteko gaitasuna, Jaungoikoaren doaitzat onartu eta onesteko”. Eta azkenez “bata bestearen zamak eroatea” (Gal 6,2)”. Espirituzko bide au barik, gitxi balio dabe komuniorako kanpoko gailluak. Arimabako gailluak

izango litzakez, komunioaren mozorroak, ez bere adierazpide eta azteko erak (43).

Elbide oneen artean oneek gogoratzen dira: Pedroren zerbitzua, gotzain-alkartasuna, Vaticano II ondoren Erromako kurian egindano barriztapena, sinodoen eta gotzain-batzarren erakundea. "Baiña egiaz asko geratzen da oindiño egin bearreko, komunio gaillu oneen gaitasunak erarik onenean adierazteko" (44).

Komunio bideak landu eta zahaldu egin bear dira: gotzain, abade, eta diakono artean, artzain eta Jainko-erri guztiaren artean, eliz-gizon eta erligioso artean, eliz batza eta mubimentu artean. Orretarako, geroago eta obeto onartu bear dira esku artzeko erakundeak, abade kontseillu eta pastoral kontseilluak, esaterako. Esanguratsua, emen, San Benitoren aipamena, nagusiari aolkua gazteenai eskatzeko diñotsonean: "Jaungoikoak sarritan gazteenari agertzen deutso zer dan onena" (45).

Oraingo erakundeai buruzko adierazpen oneek, areek gauzatu eta zentzuz eta espirituz indartzeko asmua dabe. Baiña ez ete dira labur geratzen, Elizak "komunioaren etxea" izan bear badau? Orregaitik, egiaz "asko gelditzen da egiteko". Irudi oso ederra, komunioarena. Elizak munduan komunioaren etxea izan bear dauana ideiarik biziena eta gaurkoena dugu Elizarentzat, kontraesanez heteriko mundu onetan, bidean dan globalizazioa batetik eta, bestetik, apurketak eta era guztietako zapalketak dirala. Elizak, Jesusengan, zentzua gordeten eta eskeintzen deutso gizadiaren beinbeiñeko etxcari. Zentzua eskeintzeak au esan gura dau: Zertako "globalki" alkartuta egon? Beartuta eta besterik eziñean? Alkartuta ala menperatuta? Jesusegan zentzuz heterik dago gizakien alkartasuna Globalizazioa berez menperatzaillea, zapaltzaillea eta errautsaillea izan daikete, eta olakoa da geien baten oraingoz. Elizak, Jesusegandik, beste era bateko globalizazioa eskeintzen dau. Orretarako iñoiz baiño katolikuagoa izan bear dau. Ulertu izan ete da benetan zer dan katoliku izatea? Egiña ete da ala egin bearrekoa?

“Katolikua”, bere mezuari edo edukiari buruz. Eduki oni emon izan deutso garrantzia orain arte, baiña ez dot uste dotriña batzui eustea naiko danik, onetan katolikutasuna lortzeko. Mezuaren zentzu osoa, eta beraz mezuaren erdigunea, iturburua, ikusarazo bear da katolikutasuna gauzatzeko. Zillegi da au olan ulertu izan dan zalantzan jartea.

Batera, “katolikua” izan bear dau munduko kultura eta gizakiei buruz: beraz, inkulturapenaren gaia.

Idazkiak ez dau eginbear au aaztuten. Ebanjelizatze barria “persona bakoitzaren bide beti ezbardina egokiro errespetatuz egin bear da, eta kristau mezuak jadetsi bear dituan kultura diferenteak kontuan artuz, erri bakoitzaren balore bereziak ukatu ez daitezkan, garbitu eta betera eroan baiño” (40). “Irugarren millurteko kristautasunak geroago eta obeto erantzun bear deutso *inkulturapen eskakizun* oni. Guztiz bera geldituz, ebanjelio mezuari eta eliz tradiziñoari guztiz zintzo, zabaldu eta sustraitu dan ainbeste kulturen eta ainbeste erriren aurpegia eroango dau beragaz. Elizaten eraskotako aurpegi onen edertasuna gozatu dogu jubileu urte onetan. Bearbada asikera baiño ez da, Jainkoaren Espirituak gertatzen deuskun etorkizunaren ikono doi-doi zirriborrotua” (40).

Inkulturapenaren arrazoia au da: “Graziaren misterioa amai-gabe aberatsa bere neurrietan eta gizakiaren bizitza eta istoria-rentzako korapilloetan” (56). “Iturburu au da agorteziñoeko teologi sakontzearen oiñarria ezeze, baita filosofia, kultura eta erlejiñoakazko alkarrizketaren oiñarria be” (bertan).

Egia da gauza orokorrak esatea errezago dala danontzat be, egite konkretoak mamitzea baiño.

Komunioa, benetakoa bada, errealista izango da, gaurko mundu eta gizona artuko ditu arretaz gogoan. Orregaitik Idazkiak gaurko arazo andi batzuk gogoratzen ditu. Millurteko barria kontraesan artean asi da: aberastasun ekonomiko, kulturala, teknologikoa zorte oneko batzuentzat, eta batera, ikaraz

arritu egiten gaituen egoerak: oindiño gosez ilten diranak; analfabeto izatera beartuak, ezelako sendakuntza biderik ez dukenak, aterperik ez daukenak. Onen ondoan "txirotasun barriak": zentzurik ezaren desesperaziñoa, drogaren lakioa, zaartzaroan nai gaixotasunean bertanbera itziak, gizarte diskriminaziñoa (50). Eta ekoloji desoreka, bakearen arazoak, gerra ondagarrien zemaik, ainbeste personen, batez be umeen oiñarrizko eskubideak laidotzea (51). Olako eta beste arazoen aurrean kristau karidadea "nai ta naiez kulturaren, politikaren, ekonomiaren, familiaren zerbitzu biurtzen da" (bertan).

Eliz komunioak bokaziño guztien bearrizana dau eta danak balioztatzen ditu (46, eta begitu 40).

Komunio au da Elizaren arrazoi guztia, ondo eta azkeneraiño ulertu ezkeru. Ez da ondorio morala bakarrik, Eliza bera zer dan ulertzea baiño, obeto, Kristo bera nor dan ulertzea. Komunio onetaz be esan bear da Mateorem 25garren kapituluaz Idazkiak diñoana: "Orrialde au ez da karidadearen aldeko dei utsa: kristoljia orrialdea da, Kristoren misterioa argitzen dauana" (49). Jaungoikoa alkartasuna da; Kristo "komunio"tzat ulertu danean ezagutu dogu bakarrik. Elizaren izatea, beraz, alkartasunaren zerbitzuan datza, alkartasunera deitua dan gizadian.

"Joan gaitezan aurrera itxaropenez! Millurteko barria zabal-tzen da Elizaren aurrean itsasandi eskerga lez: ausardiz sartu bear da, Kristoren laguntzaz. Orain bi milla urte gizakiaren maitasunaz gizatu zan Jaungoikoaren Semca gaur be lanean dabil. Begia zolitu bear dogu ikusteko eta, batez be, biotz andia izan, geu here langaillu biurtu gaitezan" (58). Begia zolitu: itzarrik, begituz, gogoeta egiñez, alkarrizketaz. Eta biotz andia (kristau fedearen espiritua). "Ez al da gure itxaropenaren iturburu hizi onegaz bat egiteko izan Jubileu Urtearen ospakizuna? Kristo kontenplatuak eta maitatuak orain bidean jartera deitzen deusku barriro be" (58).

*Luis Arostegi*